

poetas vascos

Hemen mapa txiki bat
daukagu bizirik
ibai-sustraiez hildokatutako esku-ahurra
bere baitakoa den bide bakar bateko
laberinto zuri-beltz zaharra
burdinaren zuzenak
eta zuraren apalak gidatua
begirada argi, gihartsu, soil-soilik egiazkoduna
eta izerdi onduan landutako esanekoa
zorioneko irrintziaren indarrean
eta harriaren laztangintzaren ezagutzan oinharritua
etxe gorpuztuaren bakardade zabalekoa
eta otso larruko bildotsaren isiltasunekoa
gure egutegi zirkularraren legera
urtero kimatua
zalantzaren lagun diren galderetan
zeinen mugek
-zerbaiten goraintzi diren
zaurien imentzioak-
arbasoek utzitako jakintzarekin
leun eta zuhur bidaiatzen bait dute
noblezia arnasten duen
itxaso baterantz

Amaia Iturbide

Aquí tenemos / un pequeño mapa vivo / una mano surcada por ríos-raíz / un laberinto blanco y negro antiguo / de un solo camino, dueño de sí mismo / guiado por la reclinadura del hierro / y la humildad de la madera / de mirada clara, vigorosa, simplemente verdadera / y de la palabra tallada en sudor maduro / fundamentado en la fuerza del dichoso irrintzi / y el conocimiento del trabajo de acariciar la piedra / con la soledad abierta de la casa hecha cuerpo / y el silencio del cordero disfrazado de lobo / brotado cada año / en preguntas amigas de la duda / según la ley de nuestro calendario circular / cuyas fronteras / -gestos de heridas / que recuerdan algo- / viajan suave y prudentemente / con la sabiduría legada por los antepasados / hacia un mar / que respira nobleza